

40/2018 IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA

Gaia: Informazio batzordeetako idazkarien inguruko egoera

JURDANA URIARTE LEJARRAGAK, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a artikulua arabera egin dut hurrengo

TXOSTENA

1. Aurrekariak

Lehena.- Langileriako zinegotzi delegatuak txostena eskatu dio idazkariari gaur egun dagoen Informazio Batzordeetako idazkarien egoeraren inguruko legezko tasunari buruz. Hau da, informazio batzordeetako zenbait idazkariak asistentziak kobratzeari buruz edo/eta orduak konpentsatzeari buruz.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duena
- Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duena

2.2. Azterketa juridikoa

- Informazio batzordeetako idazkaritzari buruz

Hasteko, komenigarri ikusten da Informazio Batzordeen izaerari buruz hitz egitea. Horretarako, 2568/1986 Errege Dekretua eta 7/1985 Legea¹ jo behar dugu

¹ 2568/1986 Errege Dekretuaren eta 7/1985 Legearen 123 eta hurrengokoetara eta 20.1.c artikuluetara, hurrenez hurren



Horien arabera, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan Informazio Batzordeak egongo dira. Organo horien helburua izango da osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzea, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko.

Informazio Batzordeak ez daukate ebazteko eskumenik eta bere irizpenak beharrezkoak dira, baina **ez lotesleak**.

Informazio Batzordeetako kideei buruz, Osoko Bilkura osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, Osoko Bilkuran duten zinegotzin kopuruaren arabera. Presidentzia alkatetzari dagokio, eskuordetzen kalte barik. Eta idazkaritzari buruz ez da ezer esaten.

Idazkariari dagokionean, 7/1985 Legearen² adierazten da toki erakunde guztietan beharrezko funtzio publikoa dela idazkariarena, fede publikoa eta beharrezko aholkularitza legala emango duena. Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen Errege Dekretuak³ dio:

La función de fe pública comprende:

a) Preparar los asuntos que hayan de ser incluidos en el orden del día de las sesiones que celebren el Pleno, la Junta de Gobierno y cualquier otro órgano colegiado de la Corporación en que se adopten acuerdos que vinculen a la misma, de conformidad con lo establecido por el Alcalde o Presidente de la misma, y la asistencia a éste en la realización de la correspondiente convocatoria.

² 7/1985 Legearen 92.bis artikuluan

³ 3.2. artikuluan fede publikoaren funtzioak suposatzen duena adierazten da



*b) Notificar las convocatorias de las sesiones que celebren el Pleno, la Junta de Gobierno y cualquier otro órgano colegiado de la Corporación en que se adopten acuerdos que **vinculen a la misma** a todos los componentes del órgano colegiado, en el plazo legal o reglamentariamente establecido.*

...

*d) Asistir y levantar acta de las sesiones de los órganos colegiados **referidos en la letra a)** y publicarla en la sede electrónica de la Corporación de acuerdo con la normativa sobre protección de datos.*

....

Artikulu hori interpretatzea ez da izan baketsua eta doktrinan zenbait jarrera daude:

- Batetik, daude babesten dutenak⁴ Informazio batzordeetako idazkaria udaleko idazkaria izan behar dela, Informazio batzordeko funtzionamenduari ordezkot moduan Osoko Bilkurako arauak aplikatzen zaizkielako⁵.

1995eko ekainaren 6ko Auzitegi Gorenaren epaiak ere zentzu berean jokatu zuen, baina informazio batzordeetako idazkaritza eskuordetzeko aukera emanaz.

Horren ostean, 2017ko irailaren 21eko Konstituzio Auzitegiaren epaia eta 2018ko urriaren 31ko Madrileko Justizia Auzitegi Nagusia epaiak dauzkagu, non esaten den, ebazteko eskumena duten organoen idazkaritza ezin dela eskuordetu.

Eta zentzu horretan onartu da 128/2018 Errege dekretua; izan ere, bertan ez da jasotzen (lehen bai, ostera) eskuordetzeko eskumena.

⁴ Auzitegi Gorenaren 1998ko maiatzaren 11ko epaia

⁵ ROF 134. art



- Bestetik, gaude defendatzen dugunok informazio batzordeetako idazkaritza ez dela udaleko idazkariaren eskumen propioa, hurrengo 3 arrazoietan oinarrituta:

a) Udal idazkariari fede publikoaren funtzioak dagozkio Errege Dekretuan ezarritako kide anitzeko organoentzat zehatz-mehatz. Hau da, Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta erabaki lotesleak hartzen dituen bestelako kide anitzeko organoentzat (batzorde zuzentzaile, administrazio kontseilu...); ez, ostera, Informazio Batzordeen inguruan, zeintzuek aurretik adierazitakoaren harira, ez daukaten ebazteko eskumenik eta Errege dekretuak espresuki adierazten du idazkari nagusiari dagokiola ebazteko eskumena duten organoen idazkaria izatea.

b) Informazio Batzordeetako akten edukia 2568/1986 Errege dekretuan⁶ jasotzen da eta dekretuak dio saio bakoitzean akta jasoko dela eta osoko bilkuretarako ezarritako baldintzak bete beharko direla. Errege Dekretuko 109.1 artikulua f eta i⁷ atalak izan ezik. Hain justu ere, atal horiek hitz egiten dute aktetan udal idazkariaren datuak jartzeari buruz eta erabakien xedapenei buruz. Hortaz, beren-beregi kendu da idazkaria batzordera joan dela aktan jartzeko beharrezana, ulertuz udal idazkaria ez dela batzordeetako idazkaria.

c) Bermeoko Udalaren antolaketa ikusita eta 11 informazio batzorde dauden bitartean behintzat ezinezkoa da pertsona bakarrak informazio batzorde guztien idazkari lanak modu zuzen eta aproposean burutzea.

Hori guztia kontuan izanda, korporazioak izendatu beharko du pertsona aproposa Informazio batzordeetako idazkaritza burutzeko, normalean Informazio batzordeko departamentu konkretuari lotutako pertsona egokia izango da. Dena den, 128/2018

⁶ Azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 137. art

⁷ Errege Dekretuko 109.1 artikulua f) Asistencia del Secretario, o de quien legalmente le sustituya, y presencia del funcionario responsable de la Intervención, cuando concurra. i) Parte dispositiva de los acuerdos que se adopten.



Errege Dekretuari⁸ jarraiki, Udaleko Idazkaria eskatzen zaionean informazio batzordeetara joan daiteke informatzeko eta aholkatzeko.

Ordainsariak jasotzeari buruz

Atal honetan langileek ekonomikoki jaso ahal dituzten kontzeptu guztiak aztertuko dira, zehazteko gaur egun zenbait langileek informazio batzordeetako idazkari lanak burutzeagatik kobratzen dituzten zenbatekoak egokiak diren edo ez:

- Kalteordainak: Langileen kalteordainak zerbitzuengatik kalteordainak jasotzen dituen Errege dekretuak⁹ arautzen ditu. Errege dekretu hori ikusita, ezin da ondorioztatu idazkari lana burutzeko Informazio batzordeetara joateagatik kalteordainak jaso daitezkeenik.

- Asistentziak: Ezin da ulertu udal langileek korporazioko kideek jasotzen dituzten asistentziak jaso ditzaketenik. Izan ere Toki Erakundearen Oinarriak arautzen dituen Legeak¹⁰ dio *"Sólo los miembros de la Corporación que no tengan dedicación exclusiva ni dedicación parcial percibirán asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de la Corporación de que formen parte, en la cuantía señalada por el pleno de la misma"*.

- Ordainsariak: Funtzionarioen ordainsariak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan jaso dira¹¹. Hain zuzen ere, aurreikusten dira oinarrizko ordainsariak, osagarriak eta ez ohiko pagak.

Ordainsari osagarrietan hurrengo faktoreak hartzen dira kontuan:

⁸ 3.3.e Informar en las sesiones de los órganos colegiados a las que asista y cuando medie requerimiento expreso de quien presida, acerca de los aspectos legales del asunto que se discuta, con objeto de colaborar en la corrección jurídica de la decisión que haya de adoptarse. Si en el debate se ha planteado alguna cuestión nueva sobre cuya legalidad pueda dudarse, podrá solicitar al Presidente el uso de la palabra para asesorar a la Corporación.

⁹ Maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretua

¹⁰ Apirilaren 2ko 7/1985 Toki erakundearen oinarriak arautzen dituen legearen 75.3 art

¹¹ Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege dekretuaren 22.art



▪ La progresión alcanzada por el funcionario dentro del sistema de carrera administrativa.

▪ **La especial dificultad técnica, responsabilidad, dedicación, incompatibilidad exigible para el desempeño de determinados puestos de trabajo o las condiciones en que se desarrolla el trabajo.**

▪ El grado de interés, iniciativa o esfuerzo con que el funcionario desempeña su trabajo y el rendimiento o resultados obtenidos.

▪ Los servicios extraordinarios prestados fuera de la jornada normal de trabajo.

Dena den, artikulu hori ez da kontuan hartzen Eukal Autonomia Erkidegoak garapen legea onartu arte.¹² Bitartean, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurrien Legeak¹³ 23. artikuluan dio *el complemento específico está destinado a retribuir las condiciones particulares de algunos puestos de trabajo en atención a su especial dificultad técnica, dedicación, incompatibilidad, responsabilidad, peligrosidad o penosidad. El complemento específico se establece por el Pleno, previa valoración del puesto de trabajo.*

Berariazko osagarria definitzen da Toki Erakundearen Funtzionarioen Ordainsairen Erregimena arautzen duen Errege dekretuan¹⁴ *complemento que está destinado a retribuir las condiciones particulares de algunos puestos de trabajo en atención a su especial dificultad técnica, dedicación, incompatibilidad, responsabilidad, peligrosidad o penosidad.*

Eta berariazko osagarria kontuan izan beharko dira lanpostuaren funtzioak dauzkaten berezitasun, dedikazio, zailtasun, erantzukizunak...

¹² EBEPen 4. Azken xedapenak zera dio: *lo establecido en los Capítulos 2 y 3 del Título III, excepto el art. 25.2, producirá efectos a partir de la entrada en vigor de las Leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto*

¹³ Abuztuaren 2ko 30/1984 Legea

¹⁴ Apirilaren 25eko 861/1986 Errege dekretuaren 4.1 art.



- Produktibitatea dela eta, ezin da produktibitate moduan ulertu informazio batzordeetan idazkari lanak burutzea, lanpostuaren baldintza bereziak berariazko osagarrian jasota daudelako eta ezin delako izan finakoak ez periodikoak.

- Gratifikazioak direla eta, berorrek jasoko dira ez ohiko zerbitzuak egiten direnean lan ordutik kanpo, horiek ezin dira izan finakoak ez periodikoak.

Informazio batzordeak ordutegitik kanpo egiten badira, erregela orokorra orduak konpentsatzea izan beharko da eta, salbuespenez, denborak konpentsatu ezin denean, ekonomikoki konpentsatu ahalko dira. Horren harira daukagu Galiziako Justizia Epaitegi Nagusiaren 2000ko apirilaren 12ko epaia.

Guzti hori kontuan hartuta, ezin daiteke informazio batzordeetako idazkari lanak burutzeagatik asistentziarik edo kalteordidainik jaso. Lanpostuen berariazko osagarrian jasota egongo dira zeregin horien ondorio ekonomikoak. Izan ere, administrari edo administrari laguntzaileen funtzioekin bat dator Informazio Batzordeetako aktak altxatzea.

Ezin dugu ahaztu EBEPen 73.2 artikulua, zeinek dioen: *Las Administraciones Públicas podrán asignar a su personal funciones, tareas o responsabilidades distintas a las correspondientes al puesto de trabajo que desempeñen siempre que resulten adecuadas a su clasificación, grado o categoría, cuando las necesidades del servicio lo justifiquen sin merma en las retribuciones.*

Ondorioak

Lehena.- Korporazioak izendatu beharko du pertsona aproposa Informazio batzordeetako idazkaritza burutzeko, normalean Informazio Batzordeko departamentu konkretuari lotutako pertsona.



128/2018 Errege Dekretuari¹⁵ jarraiki, Udaleko Idazkaria Informazio Batzordeetara joan daiteke informatzeko eta aholkatzeko.

Bigarrena.- Informazio Batzordeetako idazkari lanak burutzeak ezin du suposatu asistentziarik edo kalteordainik jasotzea; izan ere, berriazko osagarrian aurreikusita egon beharko lirateke lanpostuaren baldintza zehatzak.

Disponibilitaterik ez duten lanpostuetan, ordutegitik kanpo egiten diren lanengatik orduak konpentsatu beharko dira edo, salbuespenez, orduetan konpentsa ezin daitezkenean, gratifikazioak eman.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak egoki deritzona erabakiko du.

Oh. Orri oinean sinatzailea eta data

¹⁵ Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.e artikulua: La función de asesoramiento legal preceptivo comprende *informar en las sesiones de los órganos colegiados a las que asista y cuando medie requerimiento expreso de quien presida, acerca de los aspectos legales del asunto que se discuta, con objeto de colaborar en la corrección jurídica de la decisión que haya de adoptarse. Si en el debate se ha planteado alguna cuestión nueva sobre cuya legalidad pueda dudarse, podrá solicitar al Presidente el uso de la palabra para asesorar a la Corporación.*

